

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



To-ka-tu zai-zu!

Eta Trumpen ondoan esertzea tokatzen bazait,
zer egin dezaket?

Txustapena

2015eko finalean egon omen zen Donald (hortxe infraganti harrapatu zuen gure argazkilaria). Denbora osoa ondokoarekin bertsoaldiak komentatzen, ozen hitz egiten, epaileak kritikatzeko... enfin, Trump style.

Eta tokatzen bazaizu bere ondoan esertzea? ... baaa to-ka-tu zai-zu! Erne! Sarrera guztiak numeratuak dira (Printzipaleko arau madarikatua!). Ondo aukeratu non erosi sarrerak. Baina lasai, ABek brigadilla bat osatuko du, prezinto eskura, ahobe-roak estaliko ditu, ri-rau.

Joan sarrerak erosten: principalantzokia.org web gunean, telefonoz edo aste hauetan arratsaldetan takilean bertan.

Eszenatokian 6 izen propio, finalurrekoetatik orden honetan sailkatuta: Asier, Oihane, Serapio, Xabi, Iñaki eta Manex. Aurten, presioa egon da

finalean sartzeko!!! Izerditan eta desodorante faltan sumatu ditugu bertsolariak. Serapio finalean! 1984an kantatu zuen lehendabiziko aldiz, eta 33 urte ondoren bigarrenean.

17:10ean irekiko dira Printzipaleko atea (berririo Printzipaleko arauak). Pipak eta gominolak ezin dira jan (beste arau bat gehiago, 2054 arau omen daude).

Txapela prest. Nork jantziko du? Karla Santiestebanek. Aiaraldeko bertso-eskolako sortzaile, eragile, sustatzaile... eta bertso -aile askotan aritutakoa.

Eta finala eta gero... afari-pikoteoa zutik! Aurten bai, gure estilora antolatu dugu. Goiuri Elkarte (Landatxo kiroldegiaren ondoan) 10€-ren truke. Izena emateko azkeneko eguna martxoak 29, araba.sustapena@bertsozale.eus edo 675 70 79 71

Hau bi urtetan behin gertatzen da. Ez galdu!

KOPLA

Pisu larregi izan ez dezan arinkeriaren zamak, dena umorez idazten dugu, barkatu gaizki esanak.



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



BIGARREN NERABEAROAREN BILA

BBG Team

Heldutasunera heldu da Arabako Bertsogintza azken urteotan, bere alde on eta txarrekin. Badauka bertsolari talde koxkor bat, plazatan eta txapelketan heldutasun horren adierazgarri. Finkatutako bertso-zalego bat, ahots propio bat. Baina heldua izateak nolabaiteko lasaitasuna ematen badu ere, etxea, lana eta familia dena kontrolpean dauzkana- ren antzera, ez al du horrek nolabaiteko asperdura sortzen?

Abentura, emozio pixka bat behar izaten da berrogei urteen bueltan. Inozentzia lotsagabez eta ausardiaz ziprztindutako momentuak, lotsa galdu eta damutzeko moduko bihar- munen bat tarteka guztiontzat osasungarria baita. Urteak joan eta urteak etorri, arabar bertso mugimen- duak beti izan ditu ormonak alteratu xamarrik. Eta eskerrak. Asperdura eta Araba alfabetikoki hurbilak izan arren ez dira ongi ezkontzen. Eta gu, iazko udan iragarri bezala, bigarren nerabe- zaroaren bila goaz. BERPIZKUNDE bat, abentura berri bat, bihurrikeri txiki bat, ormona leherketa berri bat: BERTSOA BIZI GAZTE !!

Lagun eta maitale berrien atzetik, abentura bila, berrogeialdian sartze- ko asmorik gabe, udaberria lehertzen utziko dugu gudan. Loreak zabaldu eta intsektu berriei gerturatzen utzi gure polena eta nektarra probatu eta ezti berria egin dezaten. 14-18 urte bitarteko Araba osoko gazteak, txime- letak, listor, erle zein erlemendoak, BERTSO BIDEOKLIP lehiaketa batera gonbidatu ditugu. Maiatzaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dituzte bideoklipak bertsoabizi@gmail.com helbidean.

Gurea ez da izan bat-batean sortu- tako harrikada, urteak daramatzagu urtero 10-12 urteko haur belaunaldia bertso mundura erakartzen, urtero 2500 larba inguru. Baina nora doaz larba horiek? Larba egoera horretan urte batzuk pasa ondoren nola dauden ikustera joan gara eta gaztaroen metamorfosia egin, euskarazko sormena askatu eta hegaka ateratzen laguntzea erabaki dugu. Arabako eskualde guztietako 18

ikastetxeetan ia 1000 gazterekin bertso dastaketa tailerrak burutu ditugu aurten, lagin dotorea. Jakin badakigu ez direla denak bertsoen nektarzale amorratuak aterako, baina euskaraz sortzera bultzatzen baditugu bat baino gehiago izango dugu gure loretan pausatzeko gogotsu. Hegan hasten denak zeru osoa du konkistatzeko eta ez dator gaizki orientazio pixka bat. Horren adibide da OIHANEDER Euskararen etxean Julen Zulaikaren gidaritzapean bideoklipa egiten laguntzeko burutuko den tailerra.

- Lekua: Oihaneder Euskararen Etxea
- Eguna: asteazkenak
- Datak: Apirilaren 5, 12, 26an eta maiatzaren 3a

- Ordua: 16.30-18.00
- Begiralea: Julen Zulaika
- Izena ematea: Idatzi e-posta bat honako helbide honetara: oihaneder@oihaneder.eus
- Izena emateko epea: martxoaren 31ra arte
- Zehaztu beharreko datuak: Izen-abizenak, jaiotze-data, ikastetxea, emaila, telefonoa

BERTSOA BIZI GAZTEK energia txute bat izan nahi du udaberri bete betean, Maiatzaren 13an Legutition izango da BERTSOA BIZI GAZTE eguna, bideoklipak ikusi, zuzenean bozkatu, sariak banatu eta 14-18 urtez bitarteko gazteen eskolartekoa ere egun bereak jokatuko da. Legutio hankaz gora jarriko dugu. Itzela izango da!



Kakiturri bertso-eskola

Gure bertsoen kabia

Eharin, herri izandako Gasteizko auzoan, dago Kakiturri elkarte. Bertako bazkidea da aspalditik Juan Mari Juaristi gure laguna eta bertso konplizea ("gaizkidea" euskara garbian). Asteazken arrats ia guztietan Kakiturri da gure afal-bertso lekua. Eta nor gara gu? Argazkian ikus ditzakezuenak eta beste batzuk ere bai. Esango nuke 12 lagun biltzen garela gehienez, batzuek bertsolari eta guztiok bertsozale.

Aspaldi hasi ginen horretan. Ez dakit oso ziur noiz, baina oker ez banago, mende zoro honetan sartu baino lehen. Hasieran Alde Zaharreko Txirindulari Elkarte batean, baina zenbait gertaera surrealista direla medio, handik ihes egin behar izan genuen. Horretaz jakin-mina duenak Beittori galde diezaiola...

Zein izaten da gure plana? Nahiko sinplea, baina aldakorra ere bada. Txapelketarik ez bada gure bertso zerumugan, Juan Mariren agindupean afaria prestatu ondoren, gure barrenak ederki berdintzen ditugu, normalean entsaladaz eta arrainaz. Eta arrainaz esango dut, gehiegikeriarik gabe, Arzakenean jan daitekeenaren inbidiarik ez duela... Ondoren postrea, kafea edo infusioak; batzuek alkohol pixka batez bustiko dute zintzurra. Erretzaile bakarra dugu. Noizbait kanpora ateratzen da, beste batzuetan, ikusmena lainotzen digu azkura pittin batez. Azkenik, gure bertso jarduna: hasieran librean eta gero gaiak jarrita. Askotan bi taldetan banatzen gara bertsoan egiteko aukera gehiago izan dezagun, ordu-betez edo ordu eta erdiz, nekeak eta

"Asteazken arrats ia guztietan Kakiturri da gure afal-bertso lekua."



"... Juan Mariren agindupean afaria prestatu ondoren, gure barrenak ederki berdintzen ditugu."

hurrengo egunean goiz jaiki beharrak kitto esaten digun arte.

Txapelketarik hurbil bada, B plana: lehenik bertsoa, ohi baino antolakuntza handiagoz, eta zutik, mikrofonoarena egiten duen erratzaren laguntzaz. Eta gero jana.

Kakiturri elkarteak bi planta ditu. Ehariko eskola izateko eraikia, ikastola ere izan zen. Bertan ikasi zuen Xabi Lz. de Santiago gure bertso kideak. Orain dela hogeitun urte pasa elkarte bilakatu zen, belardi eder batez inguratua. Eguraldiak, tenperaturak eta argiak baimena ematen badigute kanpoan afaltzen dugu. Ez da ohikoena gure Gasteiz siberiarrean, baina zoragarria izaten da

noizean behin holako arrats bertso afari batez gozatzea.

laz eta aurten Bertso Truke izeneko bertso eskolen arteko topaketetan gabiltza. laz Txingudiko eta Goierrikoekin aritu ginen eta aurten Azpeitiko eta Durangokoekin. Bizipen ederra dira bertso afari edo bazkari hauek, patxada ederrean eta txapelketaren presio gabe bertsoaz gozatzeko aukera ematen dutenak.

Amaitzeko gonbidatu nahi zaituztegu artikulua irakurri duzuen bertso eskola edotalde guztiak Kakiturri gurekin batera bertsoan egitera otordu eder baten ondoren. Badakizue... deitu eta seguru eguna eta ordua adostea bederatzi puntuko bertso batzuk botatzea baino errazagoa izango dela

Hurrengo Berri Paperean Gasteizko Bertsoaren Saltsan bertso-eskolaren artikulua.

AGENDA!

Martxoak 24 AGURAIN	BERTSO SAIO MUSIKATUA	Bertso Korrika: Kilkenny taberna, 20:00 Nerea Ibarzabal, Ander Solozabal. Antolatzailea: Kilkenny taberna, Lautadako Bertso-Eskola
Martxoak 25 IZARRA	ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA	Doña Lola hotela, 19:00 Maite Aldazabal, Unai Gomez, Aitor Jimenez Antolatzailea: Lan Eta Jolas Elkarte, Urkabustaizko Bertso-Eskola
Martxoak 29 GASTEIZ	BERTSOKATU TXAPELKETA FINALA	Gasteizko Gaztetxea, 20:00 Antolatzailea: Gasteizko Kutziko Tabernariak
Apirilak 1 GASTEIZ	ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA FINALA	Gasteizko Printzipal antzokia, 17:30 Asier Otamendi, Oihane Perea, Manex Agirre, Xabi Igoa, Serapio Lopez, Iñaki Viñaspre Gai-emaileak: Aintzane Irazusta Aurkezlea: Nieves del Alamo

ZERNAHI

ESAN DEZAGUN EGIA



Xabi Igoa

Ai Solozabal, Solozabal...

Ondo ezagutzen ez bazintudan esango nuke aspaldian ez dizutela jaten eman...

Hori poza gure txapelketako arduradun, marroijale, whatsapp bidaltzaile, marroi emaile...-ak Arabako produktuz osatutako otarra ematean.

Baina ze kristo! Arrazoi duzu, ideia ederra izan dute beste behin ere antolakuntzakoek, jan edanak beste itxura bat ematen dio saio ostekoari.

Batzutan ospatzeko eta bestetan penak itozteko...

Bide batez, on egin parte hartzaile guztiei!



ARABAKO Bertsolari Txapelketa 2017

FINALA

GASTEIZ Printzipal Antzokian | **APIRILAK 1** larunbata 17:30

Gobernatzailea: **Aintzane Irazusta** (GASTEIZ) | **Nieves del Alamo** (GASTEIZ)

Asier Otamendi (GASTEIZ) | **Oihane** Perea (LAGUARDIA) | **Serapio** Lopez (LAGUARDIA) | **Xabi** Igoa (LAGUARDIA) | **Iñaki** Viñaspre (GASTEIZ) | **Manex** Agirre (LAGUARDIA)

www.bertsotzale.eus/araba

Antolatzailea: Arabako Bertsotzale Elkartea | **Artea**: Vital gizarte ekirteza | **artepan**

Patroiz: ALSA, ARGA, berria, Duro, Vito